

## **Arartekoa ere euskalduna!?**

*Euskaldunon Egunkaria*, 1995-02-28: 2.

Egun hauetan euskararen kontrako berriak Araban gure kalterako sortu den UA ingurutik datoz: PSOE, PP eta UA dira euskararen arerioak Arabako Batzar Nagusian, bere hitzak dira frogagarri. UAko Sanz de Santamaria legitimitate demokratikoaren defentsan, PSOEko Ernesto Ladron de Guevara alderdi honen betiko oilarkerian, eta PPko De Andres tolerantziaren izenean. Hirukoteak pentsatzen duena De Andresek bota du herenegun: "Euskara ez da gure nortasunerako funtsezko balorea". Posesibo hori ez da euskaldunei dagokiguna, hiru talde erdaldun sektariei dagokiena baizik. Aspaldidanik dakigu ez euskara, ez gailegoa ere, ez dela beraien kuttuna, gaztelera baizik, eta bere arerioa euskara dela; euskaldunen maitea, berriz, euskara da, gaztelera bera burrukatzen ez badugu ere. Baina noiz arte senti behar dugu euskaldunok etxean estraino, euskararen ofizialtasuna egunero defendatu beharreko paradan. Badugu etxean sentitzeko eskubide pertsonala eta kolektiboa nahiko; behin betiko demokrazia eta giza-eskubideak defendatzen dituzte, eta inolatan ere uko ezin ditugunak. Edo gerra aldarrikatu behar digute bestela! Faxismoak orain arte beti egin digun legez. Bada, bestalde, aitortu behar dugun zerbait: erdaldunek nagusi sentitzeko aitzakia badutela, alderdi nazionalistok Ararteko izateko hizkuntza beharrezko ez dela eman eta bigarren kategoriako figura baten eranskina onartzeko prest gaudenean.